EHU | FARMAZIA FAKULTATEA FACULTAD DE FARMACIA

Neurofarmakologia Zelularra eta Molekularra

Kontaktua Farmazia Fakultatean: Gontzal García del Caño, gontzal.garcia@ehu.eus

Zientzia-arloak: Neurofarmakologia, Neuroanatomia.

Gako-hitzak:	Sistema Endokannabinoidea, Seinaleztapen Kannabinoidea, CB_1 Hartzailea, Fosfolipasa C-β1, Diferentziazio Neuronala, Erradioligandoen Lotura, Teknika Neurokimikoak eta Biokimikoak, Immunodetekzioa, Klonazio Molekularra, Zelula-Kultiboak, Fluxu-Zitometria, Molekulekin Inprimatutako Polimeroak, TR-FRET.

Deskribapena

Taldearen ikerketa-jarduera Neurofarmakologiaren eta Neuroanatomiaren esparruetan kokatzen da, diziplina anitzeko ikuspegi esperimentalak erabiliz. Gure lana oinarrizko ikerketako bi ildo nagusitan ardazten da: garuneko CB_1 hartzaile kanabinoidearen bidezko seinaleztapenaren azterketan eta fosfolipasa C-β1 (PLCβ1) entzimak ziklo zelularraren erregulazioan eta aitzindari neuralen diferentziazioan duen eginkizunaren azterketan. Taldeak orientazio translazionala ere badu, besteak beste, mendekotasun-nahasmenduetan garuneko sistema endokannabinoideak dituen alterazioak aztertuz eta CB_1 hartzailea detektatzeko eta kuantitatiboki aztertzeko tresna sintetiko eta biologikoak garatuz eta karakterizatuz, molekulekin inprimatutako polimeroak barne. Ikerketa-ildo horiek Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko I+G+b deialdi lehiakorren finantzaketarekin garatzen dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko taldeekin lankidetzan, bereziki METABOLOMIPs taldearekin kimika analitikoaren eta inprimaketa molekularreko teknologien arloan.

Informazio gehiago: Esteka

Ikerketa-ildoak

1. Garuneko CB_1 hartzaile kanabinoidearen bidezko seinaleztapenaren karakterizazio biokimikoa baldintza fisiologiko eta patologikoetan.
2. CB_1 hartzailea detektatzeko eta haren adierazpena, kokapena eta seinaleztapena aztertzeko tresna sintetiko eta biologikoen karakterizazioa, molekulekin inprimatutako polimeroak eta TR-FRET saiakuntzak barne.
3. Fosfolipasa C-β1 (PLCβ1) bidezko seinaleztapena ziklo zelularrean eta aitzindari neuralen diferentziazioan.

Ekipamendua

Ekipamendua Farmakologia eta Neurozientziak sailetako laborategietan eta Farmazia Fakultateko zein Lucio Lascaray Ikerketa Zentroko (Arabako Campusa, UPV/EHU) gune komunetan banatuta dago. Taldeak honako hurbilketa esperimentaletarako ekipamendua du: erradioligandoen lotura-saiakuntzak, zelulen eta ehunen frakzionamendu azpizelularra (abiadura handiko zentrifugazioa eta ultrazentrifugazioa), western blot-a, neurketa espektrofotometriko eta luminometrikoak, TR-FRET saiakuntzak, klonazio molekularra, histologia-teknika klasikoak, immunohistokimia eta immunofluoreszentzia, bereizmen handiko fluoreszentzia-mikroskopia (argiztapen egituratua), zelula-kultiboak eta fluxu-zitometria.

Ikerketa-taldekideak		E-posta helbidea	Saila	Zentroa
Ikertzaile nagusia	**Gontzal** García del Caño	gontzal.garcia@ehu.eus	Neurozientziak	Farmazia Fakultatea
Ikertzaileak	**Maider** López de Jesús	maider.lopez@ehu.eus	Farmakologia	Farmazia Fakultatea
	Sergio Barrondo Lakarra	sergio.barrondo@ehu.eus	Farmakologia	Farmazia Fakultatea
	Imanol González Burguera	imanol.gonzalezb@ehu.eus	Neurozientziak	Farmazia Fakultatea
	Miquel Saumell-Esnaola	miquel.saumell@ehu.eus	Farmakologia	Farmazia Fakultatea
	Leire Borrega Román	leire.borrega@ehu.eus	Neurozientziak	Farmazia Fakultatea
Doktorego-ikasleak	**Silvia** Iñiguez Barrio	silvia.iniguez@ehu.eus	Farmakologia	Farmazia Fakultatea